

santanak • Soraluze

Danborrak eta giharrek astinduz!

Gazte eta jubilatuek aerobic erakustaldia egingo dute arratsaldean, eta gauean, berriz, danborrada izango da

Gurutze Ariznabarreta | **SORALUZE**

Santiago egunaren atarian goizeko bederatzieta, ohitura den bezala, Lizarrako dultzaineroek Soraluzeko kaleetan zehar kalejira egiteari ekingo diote. Jaietako bigarren eguneko lehen notek herria alaitasunez esnara ondoren, hamarretako bapoa banatuko da herriko Plaza Zaharrean.

Salda katilukada eta txorizo muturra janda antxixketan egiteko prestatuko dira gazte-txoenak. Izan ere, buruhandiek beraien lehenengo eguna izanda, fresko ekingo diote puxikekin ipurdiak astintzeari.

Aurrerantzean ere gaztetxoek izango dira jaietako protagonista, 11:30ean haur parkean gaztelu puzgarri erraldoiak izango baitira berauen gozagarri. 12:30ean, berriz, Bergarako

BESTELAKO EKINTZAK

Pil-pil euskara elkarteak mus eta tute txapelketak antolatu ditu. Ondoren, euskara aldarrikatzeko murala margotuko dute

musika bandaren ordua iritsiko da. Ordu horretan, Plaza Zaharrean gerturatzen denak Bergarako Bandaren doinurik zoragarrienekin kontzertu bikaina gozatzeko aukera izango du. 13:00ak aldera, aldiz, Askatasunak herri poteoa antolatu du, baita autokarabana ikusgarriaren erakusketa ere.

Goizeko korrika saioak gutxi balira, bazkalostean, umeeek jolasean jarraitzeko aukera izango dute goizean jarri eta

EGITARAUA**SANTIAGO EGUNA**

09:00: Herriko kaleetan zehar kalejira egingo da Lizarrako dultzaineroekin.

11:00: Salda eta txorizoa emango da, Plaza Zaharrean.

11:30: Buruhandiak.

11:30: Haurrentzako parkea.

12:30: Bergarako musika bandaren kontzertua, Plaza Zaharrean.

13:00: Askatasuna taldeak antolatuta herri poteoa eta autokarabanaren erakusketa egingo da.

16:30: Haurrentzako parkea.

18:00: Aerobic erakustaldia egingo da gazte eta jubilatuen eskutik.

20:00: Kalejira egingo da herriko kaleetatik zehar, Real Santa Cecilia mariatxi taldearen eskutik.

23:00: Danborrada.

01:00: Real Santa Cecilia mariatxi taldeak kontzertua eskainiko du, Plaza Zaharrean.

**PIL PILEAN ALDIZKARIA**

Askotariko ekintzak antolatu dituzte gaurko.

egun guztian zehar mantenduko den haur parkean.

17:00etan, karta jokoa atsegin duen orok, Pil-pilean euskara elkarteak antolatutako mus eta tute txapelketan parte hartu ahal izango du. Bestalde, plazan *Plazentzian jaixetan be*

euskaraz! leloa eramango duen mural pintaketa egingo da. Gero muralekin herriko kaleak apainduko dira, eta euskararen aldeko leloa nonahi irakurri ahal izango da, euskara denok, memento oro, erabil dezagun.

Eta 18:30 aldera aerobic era-

kustaldia egingo da plazan. Aurtengoari dagokionez ezin da aipatu gabe utzi gazte taldeaz gain, jubilatutaldea ere bere erakustaldia egingo duela. Ilusio handiz aritu dira urtean zehar koreografiak ikasten eta oraingoan jendaurrean sasoirik onena erakutsi ahal izango dute. Beraz, gazteek, eta ez hain gazteek, gorputza arin mugitzeko duten erraztasuna erakutsiko diete herritarrei.

Mariatxiak eta danborrada

Zortzietan gorputza mugitzen jarraitzeko Real Santa Cecilia mariatxi taldekoak jarraitzaile mordoxkarekin kalejira arituko dira kalean gora eta behera.

Afalostean, berriz, danbor hotsak izango dira nagusi. Hamaitetan Lehengo lepotik burua taldeak antolatutako danborradaren txanda izango da. Horrela bada azken horiek egindako lanari eta ehun bat herritarren borondateari esker, danbor hotsen oihartzuna entzun ahal izango da Soraluzeko kaleetan barrena.

Bukatzeko, Plaza zaharrera hurbiltzen denak Real Santa Cecilia mariatxi taldearekin dantzaldi eder bat egiteko aukera izango du. Jai giroa egunsenti arte luzatzen bada, eta gorputzak eta animoak laguntzen badu, 19:00etan zezenek esango diete kaixo santana egun berriari.

ARDOAK eta PENTSUAK JOSE URTIAGA

Etxaburueta, 5 behea - ☎ 943 75 10 27 - **SORALUZE**

TXOKO KAFETEGIA
Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22 behea - tfnoa: 943-75-17-89 - **SORALUZE**

ETXEBARRI® Barra kargatzaile automatikoak • Tuarka heriztatzaileak
Artekatzaileak • Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola, Industrialdea
Tel.: 943 75 18 91 - Faxa: 943 75 24 58 - **20590 SORALUZE**

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S.A.L.

Industrialdea, z/g - 138 Postakutxa
Tel.: 943 75 21 50 - Faxa: 943 75 21 18
SORALUZE

BENITO ANAIAK ALTZARIAK
Santa Ana, 26 • Tel./ Faxa: 943 75 20 47 • **20590 SORALUZE (Gipuzkoa)**

Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana, 20 • Tel.: 943 75 12 41 - 639 179 696 - **SORALUZE**

OLARRI, S.L. LEIHOAK
OLARRI AROZTEGI METALIKOA
☎ 943 752 504
Faxa: 943 752 507
SORALUZE Industrialdea, 10, Partzela
73 Rk. - **20590 SORALUZE**

ARRANO TABERNA

JO TA KE, DESKANTSURIK GABE,
LURDES, PEDRO JOSE, ELOI, JUANJO ETA
ANGELUA, GURE ARTEAN EUKI ARTE...

SORALUZE

Tel.: 943 75 24 09